

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak/Obrak	Auzotar batek salatu du ura sartzen dela dorreetako garajeetara.	Aztertu da eta konklusioa da ura ez dela espaloitik sartzen.
Udaltzaingoa	Aparkaleku-plaza gehiago eskatu dute mugikortasun urriko pertsonentzat.	Herritarren batek mugikortasun urriko pertsonentzako plazaren bat jartzeko eskaera zehatza egiten duenean, Udaltzaingoaren txostena egiten da, eta bertan jasotzen da nola dagoen gune hori; eta ondoren Trafiko Batzordean aztertu eta erabakitzen da beharrezkoa den edo ez.
Udaltzaingoa	Kexa bat gazte askok botiloia egiten dutelako elizaren ondoko parkean.	Halako jokaerak ikusten direnean —auzotarrei molestiak eragiten dizkietenak—, Udaltzaingoari jakinarazi behar zaio zer gertatzen den egiaztatu dezan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Bustinduitarren kaleko hustubide bat dela-eta dituen arazoak konpontzeko. Adierazi du argazkiak bidali zizkiola Udalari.	Arazo hori H2O eta Gipuzkoako Urak enpresen laguntzarekin konpondu da.
Obrak	Galdetu du ea proiekturik dagoen Bustinduitarren kaleko espaloiak berrizteko. Dioenez, egoera txarrean daude.	Berrurbanizatzeko proiektu bat idazten ari gara.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Amañako igogailuko pasarela goratzeko, zeren eta gaur egun dagoen altueran etxebizitzaren barrualdea ikusten baita.	Urte honetako Aurrekontuetan partida bat dago gai hau konpontzeko.
Obrak	Bizilagun batek, Tiburtzio Anitua 18 zenbakiaren izenean, eskatu du pegorako sarbidea hobetzeko.	Proiektu bat aztertzen ari dira kale honetako pegoretarako irisgarritasuna hobetzeko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila	Laburpena	
Obrak	Amaña 9 zenbakiko bizilagun batek eskatu du arrapala bat eraikitzeko pegoretara sartzea errazteko.	Aztertu da eta ez da soluziorik ikusten kaleko aldapa gogorra dela-eta.
Udaltzaingoa	Salatu dute Amañan duten okupazio-arazoa.	Gaiak Ertzaintza eta Udaltzaingoa kezkatzen ditu, baina etxetik ateraraztea dakarren prozedura judiziala luzea da. Halako kasuetan, beharrezkoa da jabetzaren salaketa, eta, oraingoz ezin izan da hura lokalizatu.
Zerbitzuak	Eskatu dute garajeen gaineko parkeko lurzoruan tratamendu irristagaitza aplikatzeko. Diotenez, euria ari duenean oso irristakorra egoten da.	Eskabidea Mankomunitateari igorri zaio, parkeko garbiketa sakon bat egiteko eta itsatsitako zikinkeria kentzeko.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea estali daitekeen sare metaliko batekin Amañako frontoiaren frontisaren alboko eta goiko aldea. Dioenez, euria eta haizea dagoenean ura sartzen da.	Aztertzen ari gara kontu hau.
Zerbitzuak	Bizilagun batek garbitasun gehiago eskatu du Karlos Elegezua kaleko igogailuan.	Udal-igogailuak urteko 365 egunetan garbitzen dira. Nolanahi ere, aurtien beste enpresa bat kontratatatu da lan horiek egiteko eta hobetu egin da garbiketa.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila	Laburpena	
Obrak/ Udaltzaingoa	Eskatu dute aparkaleku-plaza gehiago jartzea auzoan eta kontrolatzea mugikortasun urriko pertsonentzako plazen erabilera desegokia.	Mugikortasun murriztuko pertsonentzako gune batean baimendu gabeko ibilgailu bat dagoela ikusten denean edo abisuren bat jasotzen denean, bidezkoa den salaketa jartzen da. Halako jokaeraren bat ikusiz gero, Udaltzaingoarekin harremanetan jarri behar da. Horren harira, aztertuko da saihezbidearen sarreran aparkalekuak egiteko aukera.
Obrak	Bustinduitarren 18 zenbakiko bizilagun batek eskatu du esku-hartu dadila kaleko 8 eta 18 zenbakien arteko ataraietarako sarbidea errazteko, espaloia oso mailakatuta dagoelako.	Berrurbanizatzeko proiektu bat idazten ari dira gune horretarako.
Zerbitzuak	Eskatu dute egonkortzeko Bustinduitarren kaleko 18 zenbaki aurrean dagoen bankuetako bat. Diotenez, inklinatuta dago.	Lan hori egin da dagoeneko.
Zerbitzuak	Salatu dute Wenceslao Orbea kaleko igogailua hondatuta dagoela askotan.	Igogailuak arazo bat izan zuen kableekin, baina aldatu zirenean konpondu egin zen.
Obrak	Eskatu dute zerbait egin dadila trenak ateratzen duen zarata leuntzeko.	Euskal Trenbide Sarea zaraten azterketa bat egiten ari da toki horretan. Hainbat neurgailu jarri eta datuak jaso ondoren, hartu beharreko neurri zuzentzaileak jasoko dituen txostena egiten ari dira.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila

Laburpena

Obrak

Herritar batek informazioa eskatu du gasolindegia ondoan eraikiko den igogailuari buruz.

Proiektu bat idatzi da, eta Euskal Trenbide Sarearekin lanean ari gara, eremuan elkarrekin jarduteko eta geralekurako irisgarritasuna hobetzeko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

data: 2021/11/17

Saila

Laburpena